

Kontu Ikuskaritzako Unibertsitate Masterreko irteerako profila

Master hau bukatzen duten ikasleak gai izango dira:

1. Beren jakite teknikoak eta arazoak konpontzeko gaitasuna erabiltzeko urteko kontuen ikuskaritza batean parte hartzen dutenean, lehenengo urteko laguntzaile moduan.
2. Ikuskaritzako taldeetan barneratzeko eta haiekin batera lan egiteko, proiektuaren helburuak bere eginez.

Tituluak tituludunei aukera emango die hainbat lanpostutan aritzeko:

- Ikuskaritzako enpresetan
- Enpresa pribatuari eta publikoari lotutako aholkularitzetan
- Edozein sektoretako enpresetan, kudeaketako kontabilitatean (eta, horien barne, barne ikuskaritzako lanpostuetan)
- Hainbat sektoretako enpresetako erantzukizun eta/edo ardurako lanpostuetan (kontabilitate zuzendaria, finantza zuzendaria, kontu hartzailea, controllerra...).